



AKELARRE - N. Basterretxea



EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortasun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarritz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

berria

2001ko URTARRILA 29. zkia.
125 pzta.

*Sorgintxulo.
Bigarren Urteurrena*

*Begoñeko
Santa Ageda*

*Behi eroen psikosia
Mahatserrira
ailega da*

Sei Izar Krossa



Andoni Euba

**Estatu Batuetan bidea
egin duen Solokoetxeko artista**



Argazkia Euskal Museoak paratutako "Bilbao 1860-1895. Pedro Telesforo de Errazquin" liburutik hartu dogu.

Larrinagako kartzela zaharra

Egunokaz Euskal Museoan zarratuko daben erretratu zaharren erakusketatik bat hartu dogu. Pedro Telesforo Errazkin bilbotarrak ataratako argazkietatik goiko hau Larrinagako kartzela erakusten deusku. San Antonetik urtenda Zabalbidetik gora, gaur egun Vicente Garamendi etxe moltzoa dagon orubeari "Larrinaga" esaten jakon.

1870an, bigarren karlistada hasi baino apur bat arinago, Diputaziñoak Urazurrutia kaleko kartzela kendu eta Larrinagan barria egiteko agindu eban. Goiko erretratu hau 1877 urte aldean atara eban Errazkinek, eraikitze beharrak amaitu eta urtebetera.

Hatan denboretan, begi bistan dekogu, Solokoetxeo bazterrotan solo asko eta etxe gitxi.

ARGITARATZAILEA:

Batana Batu Kultur Elkartea

ERREDAKZIOA:

Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Telefonoa:
94 473 54 48
e-posta: berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA

Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:

Arrate Diez,
Joana Etxebarria, Irune Berro, Iratxe Ruiz, Erdoitza Martínez, Unai Cuevas

ARGAZKIAK:

Iñigo Azkona eta Xabier Herrera

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Iñaki Berastegi.

KOLABORATZAILEAK:

Jaione Letamendia, Itxaso Perez, Alberto Ugarte, Iñaki Gaminde, Igor M. de Vidales, Santutxuko Bertso Eskola, Iñaki Aurrekoetxea, Joseba Zelaia, Benito Fiz

ADMINISTRAZIOA ETA PUBLIZITATEA:


Koldo Urrutikoetxea, Zuriñe Martínez

LEGE GORDAILUA:

Bi-85-98

ALE KOPURUA:

1.000



▶ Betikoak2	▶ Bakarka: Sabin Euba15
▶ Iritzia4	▶ Mahatsberriak20
▶ Sorgintxulo. 2.Urteurrena5	▶ Hezkuntza24
▶ Begoña eta Euskerea8	▶ Mendi Ibilbidea27
▶ Gure Etxea auzo elkarte10	▶ Kultura: Idazketa Tailerra28
▶ Behi eroak12	▶ Horoskopoa/Agenda30

Zuek behi zoroan okelie jan dozue, seguro ta zierto! Hiru urte nabil hamen kaparradie emoten ta ondiñokarren leiduntan dozue hau? Ta ganera ez dostazue kasu egingo, ez da? okerreko okelie jan dozue, bai.

Ba, zuek, eta Berton egitten daurienak, ta berton urteten daurienak ta ... txuleta zaliek bazarie, ba neuk emongo dotzuet orain txuleta ederra:

MATZORRIANO ZIBERESPASIOAN!!!

Kantsata nago hamen eskribiduten, ta nik esan ta zuek leidu, ta seguramentien desiaten egongo zarie niri esatekoak esateko, ba ointxe daukazue modue: matzorriano@elektrotuna.com neska-mutilok.

Matzorrianoan konsultoridoxa. Neure sabidulentzidxe guttidixen zatitxu bet gure badozue, eskribidu ta kontestau egingo jatxue. Zer kontestako dotzuet ez dakitt, baie aprobetxau ein bier dot. Ze, lengo egunien musiko bat-

zuek erregalau ostien korreoletronikoa. Hariiek bere bai! Hariiek, txuletie, filetie ta tripakalloak jan dauriez, zelango ganadue! Ta ikusi, eurekaz juntau ta, altabosak eskegitte dekiezela, hantxe hasi zirien jo ta jo, ha zagatie! Ta preuntau nontzien aber joten bazeurien Ramonesen bat, ze ni betik ixen naz Ramonesen zalie... (A! Pentsau dozue ni unputoboronodealdeakriabakaskontalo nazala. Pentsau, pentsau...) Ta, konture, ba esan ta atoan jo ostien dozena bat, ta "Miraelbaskokenrollao" esan eurien ta batek esan ostan: "Kabonla! Ba erregalaukotzut korreoletronikoa, gurea". Bale, ta nik erregalau nontzien Matzorriano 5.6.0-3 programien azkenengo beta probau daidxien, ta danak pozik!

Ta neure gueba preparaten doten bittartien (www.matzorriano.com) badakixue: entxufau zaittezie! matzorriano@elektrotuna.com. Preguntau, preuntau...

Firmaute: : bilgeits@matzorriano.com

GAIA JARRITA: FUTBOL LIGAKO LEHENENGO ZATIA AMAITUTAKOAN, ZER?

DAGOENEAN BONBON, EZ DAGOENEAN...

lazko denboraldia amaitutakoan honelakoxea zen gure egoera: lau euskal futbol talde jardunean mundu zabaleko liga nagusietarik batean, espainolean hain zuzen. Euskal Herriak hiru milioi biztanle baino ez eta hala ere munduko futbolaren elitean lau talde profesional sartzeko gauza dela erakutsi du. Alavés eta Osasunaren igoeren ondoren Hego Euskal Herriko talderen baten ausentzia gogoratzeko antzinako kantu horiek bazterrean ahaztuta gelditu ziren. Errealitatea, oster, tematia da eta zentzuz gero argi dago lau taldeok batera ezin dutela luzaroan lehenengo mailan segi.

Athletic da Barcelona eta Real Madriderkin batera lehenengo mailan beti egon den talde bakarra. Horrexek ematen digu bere balentriaren tamaina. Batzutan disdiratsu eta bestetzutan apal-apal, lehenengo mailako bazkide txartela duela ematen du. lazko denboraldi goibelak Luis Fernándezen agurra ekarri zuen. Tarifako entrenatzailearen txanda agortuta zegoela zirudien. Orain, etxeko batekin, Txetxu Rojorekin hain zuzen, ideiak iraultzeko lanean dihardu Athleticcek, jokalaria taldean aldaketa gutxi egin badu ere. Ligaren lehenengo zatia sailkapenaren erdian amaitu du eta, gauzak ondo, bigarrean Europa-para bueltatzeko borrokan bete-betean sartuta ikusiko dugulakoan nago.

Errealarena bestelakoa da. Lehenengo mailan dagoenetik hona hauxe da bere krisirik gordinena. Azken hogeitau urteok bere historiaren unerik goxoenak ekarri dituzte. Liga bi eta Kopa bat, besteak beste. Baina gailurra jo eta gero taldeko iza-

rrak kanpora joan eta atzerritarrak ekartzea deliberatu zuten. Geroztik, salbuespenak salbuespen, kirol emaitzak urterik urte gero eta kaxkarrago. Krisia orain lehertu da, ekipoa bigarren mailarako biderik zuzenenean abaildurik, kluba zuzendaritzarik gabe -Uranga badoa- eta Toshack barruan oster be jaun eta jabe.

Alavésari dagokionez, Ligako ekiporik apalena izanagatik ere iaz Manéren eskutik UEFA-n sartu eta Txapeldunaren Liga lantandu ere egin zuen. Ezin ahaztu, ordea, lehenengo mailan Alavésa bere ahalmenen gorenko mugan bertan dagoela. Horregatik, gaur eguneko arazoa da iazko emaitza ikusgarriaren ostean taldeari gehiegi eskatzen zaiola. Zaletuei berehala ahaztu zaie ekipoa nondik datorren. Bere eginkizuna goian indartsueneren artean borrokan egotea dela uste dute, urterik urte lehenengo helburua salbazioa dela kontutan hartu barik. Osasuna euskal futbolaren azken poza izan da. Jakin badaki lehenengo mailari eusteko borroka dela berea. Horregatik, aste asko azken postuan eman arren ez dira larritu. Lotina buru dutela, etorriko zaien borroka latzari aurre egiteko prestakuntza sikologikorik onena dutela ematen du.

Dena dela, hau ez da matematika. Joko bat baino ez da eta, horregatik, amaierak sorpresarik ekar lezake.

Iñaki TELLERIA

GARA egunkariko Kirolak saileko burua

Bizkaiko Foru
Aldundiko
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria

hartu bertón etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertón aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:

Abizenak:

Kalea: Zenbakia: Solairua:

Herria: Herrialdea: Posta Kodea:

Telefonoa:

Bankua:

Kontu zenbakia (20 digito): ____ / ____ / ____ / ____

Sinadura



SORGINTXULO GAZTETXEAREN BIGARREN URTEBETETZEA

KARMELOKO LOKALETAN LIBURUTEGIA, ZINEMA, IKASTAROAK, MUSIKA ETA INFORMATIKA UZTARTU DITUZTE GAZTEEK

Testua: Arrate Díez

Argazkiak: Sorgintxulo

1999ko urtarrilaren 5ean Santutxu eta inguruetako gazteek lokalen eskasia zela eta Karmelo elizako lokal hutsik batzuk konpondu eta auzoko kultur erreferentea bihurtu nahi izan zituzten. Urte biko autogestioaren ondorioz lortu dute, Sorgintxulo denon ahotan dabil eta.

Urtarrilaren 5 eta 6an gazte mahatsorriek Sorgintxuloren bigarren urteurrena ospatu zuten hainbat ekitaldien bidez. Bariku goizean umeentzako jokak antolatu zituzten, tiralina eta rapelatzeko aukera eman zieten Sorgintxulo aldera hurbildutako guztiei. Arratsaldean "Elektrotuna" ospetsua auzoan zehar kalejiran ibili zen euren musikaz bazterrak alaitzen. Zinema aretoan Sorgintxulo gaztetxeari buruzko bideo emanaldia ere proiektatu zuten.

Urtarrilaren 6an, goiz partetik, zantantzarrak agertu ziren auzoan barrena eta ondoren gazteok hamaiketako prestatu zuten Sorgintxulon bertan. Arratsaldean, berriz, karaokea eta playbacka izan ziren ekitaldirik potoloenak. Ospakizunei amaiera emateko Sorgintxuloko musika taldeen kontzertua izan zen gauean. Programa joria benetan honez gero nahiko hazita dagoen gazte lokal honen bigarren urtemuga jaia osatzeko.

IKASTARO ETA ERAKUSKETAK

Gazteen inizatiba honen ibilbidea oso aberasgarria izan da auzoarentzat. Hala, hasieran lan handia egin behar izan zuten gaur egun dauden lokalak behar bezala egokitzeke. Lehenengo ikastaroak txistua jotzen, hankapalutan ibiltzen eta euskara ikasteko egin ziren. Urteak joan urteak etorri, orain-



goan aurreko ez gain informatika, zeramika eta txalaparta ere jakiteko modua eskaintzen du Sorgintxulok.

Ikastaroez gain, erakusketa ugari eskaini dituzte lokal hauetan. Besteak beste, Kakitzat taldearena -antimilitarismoaren inguruan-, Malatxak kontrol sozialaren gainean atondutakoa eta hainbat egileren argazki erakusketak.

Sorgintxulon Santutxuko talde askok du bere txokoa. Esate baterako, Iduna emakume taldea, Gazte Asanblada eta Malatxa. Musika arloan be bada mugimendurik, auzoko zortzi taldek entsaiatzen baitute Sorgintxuloko lokaletan.

LIBURUTEGI ETA ZINEMA

Lokal hauetan liburutegiaz gozatzeko parada ere badago. Liburuak kontsultatzeaz gain, ikasi zein ekitaldiak egiteko leku paregabea da. Bertan, "Argala" liburuaren aurkezpena, José Duesoren berbaldia mitologiaren gainean, Bertso Eskolaren eta Asapalaren kultur jardunak egin izan dira. Magia eta antzerkiarentzako txokoa ere izan da Sorgintxulo.

Zinema areto gisa ere atonduta dago gazteen lokaletan. Astean hirutan zine emanaldiak eskaintzen dituzte sarrera sinboliko baten truke. Hala, "Matrix", "Panteras Negras" edo "Solas" bezalako

OSPAKIZUNEN SOKA LUZEA

Urtarrilaren 5 eta 6an gazte mahatsorriek Sorgintxuloren bigarren urteurrena ospatu zuten hainbat ekitaldien bidez. Bariku goizean umeentzako jokoak antolatu zituzten, tiralina eta rapelatzeko aukera eman zieten Sorgintxulo aldera hurbildutako guztiei. Arratsaldean "Elektrotuna" ospetsua auzoan zehar kalejiran ibili zen euren musikaz bazterrak alaitzen. Zinema aretoan Sorgintxulo gaztetxeari buruzko bideo emanaldia ere proiektatu zuten.

Urtarrilaren 6an, goiz partetik, zanzantzarrak agertu ziren auzoan barrena eta ondoren gazteok hamaiketako prestatu zuten Sorgintxulon bertan. Arratsaldean, berriz, karaokea eta playbacka izan ziren ekitaldirik potoloenak. Ospakizunei amaiera emateko Sorgintxuloko musika taldeen kontzertua izan zen gauean. Programa joria benetan honez gero nahiko hazita dagoen gazte lokal honen bigarren urtemuga jaia osatzeko.



filmak jarri dituzte ikusgai. Erdaraz ez ezik, euskaraz ere eman dituzte euskaldunek eta euskara ikasten ari direnek zinea gure hizkuntzaz ikusteko modua euki dezaten.

Zinerik ez dagoenean aretoa hitzaldiak egiteko erabili izan dute. Bertatik, besteak beste, Pepe Rei ikerkuntza kazetaritzaz berba egiteko, Mitxel Sarasketa preso ohiak kartzeletako egoeraz jarduteko eta Juanito Oartzabal mendi espedizioei buruz aritzeko pasatu dira.

ARETO BERRIA ETA LUDOTEKA

Taberna dagoen tokia astean zehar ludotekarako egokitua dago. Bertan xakea, dominoa, partxisa zein beste hainbat joko dagoz zain arratsalde ludikoa emateko.

Azken berrikuntzen artean abian jarri nahi den erakusketa aretoa dago. Gela bat egokitzen dihardute erakusketetarako. Berau zorua eta hormak barriztatu bezain laster zabalduko da. Artelanak, koadroak zein argazki erakusketak atonduko dituzte.

Sorgintxulon parte hartzen dutenek batzordea antolatzen dira, horrela bakoitzak ardurak bere gain hartzen ditu esparru zehatzetan. Ondoren, astean behin, batzorde guztien asanblada orokorra egiten dute gaztetxearen funtzionamendu egokia eta sor litezkeen kezkak konpontzeko asmoz. Beraz, horra hor gazteen autogestio eta bide alternatiboak joratzeko aukera paregabea. Zorionak Sorgintxulo!!

**PRESOAK KALERA
AMNISTIA OSOA!**



SAAK

GOIAN S.C.L.

LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

TELEFONOAK:

630 08 09 38

659 45 16 22

Karmelo Elorriaga:
 "Hori letre hori atzinekoa izan behar dau, sano atzinekoa"

Begoña eta Euskerea

I. Gaminde, I. Martin de Vidales eta K. Urrutikoetxea

BEGOÑEKO SANTA AGEDA



1945 urteko argazkia. Santa Ageda kantetan Begoñako "Gallaga" abesbatza Santa Marina ospitalean.
 Txeluk itxitako argazkia

Santa Agedako koplak kantatu eta Santa eskean ibiltea, Euskal Herri osoko ohitura zaharra da, eta hain zabala izanda, koplak eta doinu asko dagoz herrien arabera.

Begoñan kantetan zana ezetu gurean Karmelo Elorriagarengana joan gara eta koplak honek kantatu deuskuz:

Abe Maria purisimia
 hau da lenango berbia
 Bedeinketua izan deitela
 etse honetako jentia
 Pobre ta umilde dabizenaintzat,
 badeizu borondatia
 Eteko jaunak esango dosku
 kanteko badu edo ez.

(Kanta edo errezeu)
 Etxeko jauna isilik dau ta
 kantau mutillek aurrera.

Oles ta oles atean,
 nor dabil denpora honetan
 mutil soroak alkar hartute *
 Santa Ageda kantetan.

Santa Ageda, Ageda
 ez ta hilian egian
 Urtian behin de beria bere
 zezaille bosgarrenian

Santa Agedak emon deizuela,
 osasuna ta bakea
 Hurrungorarte bagoaz eta
 parkatu eizu mesedez.

Santa Ageda Ageda,
 bier da Santa Ageda
 Bier da Santa Ageda eta
 haren bezpera gaue da.

* "Begoñeko birjini amaren semiak",
 Manu Leginak sartutako bariantea.

"Ezetu dodaz aite difuntue eta Miniño, Txomin soinuagaz Bitor Bilbao, Daniel, Txomin, hamar edo hamaika, normalean kintoak izaten ziren. Hori letre hori atzinekoa izan behar dau, sano atzinekoa"

Alejandro Urrutikoetxeak barrez, etsekoei bertsokan kantetan jakeen orduko gogorapena dauka



1944ko argazkia "Gallaga" korua Briñas ospitalean.
 Txelu Etxebarriaren argazkia

"Hantxe goien landetan,
 eperra dago kantetan
 Hantxe goien ardi bi,
 bata bestia dirudi"

"..honek zarrak xebreak izaten ziren beste modure, kanteu, etsekoari kasu beterako ezta?, atarate eurien aitteri ta semieri eta, bakotzak jakite eurien koplak, bakotxari koplak kantaten jakon, gero bai, gero urtete eurien koadrillak Txurdinaga, Matalobos eta hortik." Txelu Etxebarriak be gogoan dauka Sta. Agedako ohiture Begoñan. Gallaga izeneko koruan kantetan eban, Sindikato ondoko taberna zan Gallaga, eta han egiten ebezan entsaioak. Aintzaldutako deigun.... bertsinoak kantetan eben

GURE ETXEA, URIBARRIKO AUZO ELKARTEA AUZOAREN ALDEKO JARDUNEAN MENDE ERDIA BETEKO DU LASTER

Orain dela 47 urte Bizkaiak mugimendu industrialaren ondorioz inmigrazio handia ezagutu zuen. Masifikazio honen ondorioz, ez zeuden kanpotik industrian lan egitera zetozen guztientzako beste etxe; etxebizitzak edozein modutan eta neurritan eraikiko direlarik: ez da estolderiarik egiten, ez da hiri-gunerik sortzen, garraioaren inguruan arazo izugarriak ematen dira,... Guzti honi aurre egiteko auzokide batzuk Uribarriko lokal txiki baten elkartu ziren "Gure Etxea" elkarte sortuz.

Testua: Erdoitza Martinez
Argazkiak: Gure Etxea



Uribarriko auzoek Maurice Ravel autobidea ebagiten, orain urte asko.

Elkarte honen "eginbeharrak" ez dira beti berdinak izan. Horrela hasieran hainbat ekintza garrantzitsu egiten bazuten ere -batez ere, Pilar Careaga alkatearen garaian-, erreforma politikoarekin hiritarrek elkartean zuten konfiantza politikoengan jarri zuen. Baina denbora joan ahala eta sistema honen erantzuna ez dela nahikoa ikusita, elkarteak udal-administrazioaren desproporzió eta jomugei aurre egin nahi die. Zergaitik borroka hau? "Udal-politika ez da hiri, ezta hiritarren arabera egiten; baizik eta funtzionarioen kutxen arabera". Horrela, gaur egiten duten lana elkarte gisa da "hiritarrenaganako eraso eta iraina erantzutea".

GAIK

Euren lana ez da orokorra, euren arazoak eta jendeak aurkezten dietenak euki ohi dituzte helburu. Orain

pil-pilean dituzten gai batzuk hurrengook dira:

***Artxandan eraiki nahi dituzten golf zelaiak:** Bizkaian 6.000 federatu daude kirol honetan, eta hauentzako lur publikoaren milioi erdi metro karratu lur pribatu bihurtu nahi dute.

***garraioa:** metroaren agerpenarekin Uribarri ondoan zegoen trena kendu diete, eta ezin dira Plentziara hurbildu lehen bezalaxe. Orain "paseotxu" handia eman behar dute metroa hartzeko. Gainera auzo honek bakarrik ditu bi autobus linea eta ordu batzuetan ezinezkoa izaten da hauetan ibiltzea.

***etxebizitza sozialak:** Gaur egun mila etxebizitza daude, baina bat ere ez soziala. Garrantzitsua izango litzateke gisa honetako 250 etxebizitza egotea, bestela alokairu baxuko hainbat pertsonen ezin izango dute bizitexe duina lortu.

Gaur egun, gisa honetako etxeak badaude, "Grupo de los doce amigos" deiturikoak, baina hauek behera bota nahi dituzte, jendea kaleratuz, etxebizitza pribatuak eraikitze-ko.

Hauek izango liratekez eskuartean dituzten gai garrantzitsuenak, baina hauekin batera beste batzuk egongo liratekez: zaramak, eskailera mekanikoak jartzea Uribarriko goiko kaleetan,...

ZELAN EGITEN DUTE LAN

Elkarkideen izaera ere denborarekin aldatu da. Hasieran den-dena arazo bakarra zen, eta jendea identifikatua sentitzen zen albokoaren problemekin. Baina gaur egun arazoak lokalagoak dira. Horregaitik "Gure Etxea" arazo bakoitza indibidualki aztertzen du euren lana nukleoka burutuz. Normalean, administrazioa hurbiltzen dira arazoa eta konponbideak aurkeztuz; baina, bestetan mobilizazioak bultzatzen dituzte.

Elkarte hau bere elkarkideek iminitako diruaz ateratzen da aurrera, zortzi-hamar pertsonen osaturiko batzordeak aztertzen dituelarik mahai gainean dituzten arazoak. Biltzar hau bi urtero aldatzen dute asanblada orokor batean, non kide guztiak hartzen duten parte. Bazkideak batez ere emakumeak eta 30 urtetik gorakoak dira.



Argazki historikoa. Gure Etxeak Tutulu eta Lezamarako bide zaharreko urbanizazio eske egindako mobilizazioa.

BESTE ELKARTEEKIKO ERLAZIOA:

"Erlazioa ona da, agian eskasa". Aurrerago aipatu dugunez gaur egun arazoak lokalizatuagoak daude, horregaitik, normalean, elkarte bakoitza bere gunean oinarritzen da. Hala ere, egia da, "koordinazio beharra garrantzitsua dela,; batez ere aurkako beti berdina delako: udal-administrazioa, estatu-administrazioa, diputazioa,... Koordinazio handiago behar dugu zarama, garraioa, eta antzeko arazo komunak gainditzeko." "Bilbotar guztiak elkarrekin bagaude gauza handiagok lortuko ditugu!".

Bazkide txartela

Izen deiturak:	ENA zenbakia:
Helbidea:	Herria: Posta kodea:
Telefonoa:	Lanbidea: Jaioteguna:



Iturriaga 55 1 Erkerra 48004 Bilbo
Telefonoa: 94 47354 48
E-posta: asapala@euskalnet.net

Partehartze mota:

Bazkide soila

Ekintza jakinetan laguntzaile

Lantaldeko partaide

Ordainketa:

Kontu korrante bidez

Asapalaren kontuan

3035 0071 6 071 105864 2

Kuota korrante bidez

500 pta


1000 pta

2000 pta

pta

Behi eroen psikosia Mahatserrira ailega da

Duela urte batzuk Erresuma Batuan gertatutakoaren ondorioz behi eroen gaitza jakin ahal izan genuen. Asko izan ziren kutsatutako behien haragia jateagatik gaixo jarri ziren britainiarrak eta hainbati heriotza ekarri zion. Denboraldi luzea igaro arren, gaitz honek gizartean kezka gero eta handiagoa sortarazten du, gai honen inguruko hika-mika guztiak Euskal Herrira, hortaz, Mahatserrira ailegatu direlarik.




Testoa: Iruñe Berro Urrizelki
Argazkiak: Iñigo Azkona

Asteak daramatzagu hedabideetan behi eroen inguruko albisteak ikusi eta entzuten eta Galizian bezala Euskal Herrian gaitz honekin kutsaturiko behien bat agertuko ote den beldur gara. Egoera nahasia da benetan eta mota askotako iritziak topa ditzakegu. Santutxuko merkatura gerturatu eta honela erantzun digu bertan erosketak egiten zebilen andre batek: "Nik aspaldi utzi nion behi okela erosteari. Arraina erosten dut eta badakit itsasoa ere marea beltzen bat edo beste zerbaitengatik kutsatua egon daitekeela, baina momentu honetan nahiago dut okelik ez jan". Bertako harakin bati gobernu espainiarrak hartutako jarreraren inguruan zer uste zuen galde egitean berriz, tontokeriak esan baino ez dutela egiten adierazi zigun.

Pozik ez eta gai honen inguruan gehiago jakin nahian Santutxuko merkaturtik Iñaki Jubetoren harategira jo genuen.

Iñaki Jubetok aspaldi du harategia Santutxun eta bertara abiatu ginen bere iritzia ezagutzeko asmoz. Behi okelaren salmentak jaitsi egin direla aitortzen du baina ez hedabideetan esan bezain beste. "Salmentak %60an jaitsi direla diote, nik ez dakit nondik atera duten datu hori baina ez da erreal. %20an jaitsi direla esango nuke nik".

Iñakik Mahatserriko hainbat harakinek bezalaxe, hedabideek sortutako psikosiaz hitz egiten du: "Euskal Herrian ez da behi bat ere ez kutsaturik agertu beraz, orokorrean Euskal Herriko okela lasai asko jan daiteke". Hala ere, mahatsorri honen esanetan, kanpotik ekarritako okela asko da, eta hori ez dago ziurtatzerik. Jubetorekin hitz egin eta gero, urtarrilaren hondarretan, Aezkoako Hiriberrin (Nafarroa) balizko kasu bi agertu ziren.



Derioko laborategian behikia aztertzen.


BEHIEN ENA

Bitxia iruditu arren, behiek ere badute kontrolerako agiria. Une honetan hau da harakinek beren bezeroei, erosten duten okela kalitadeduna dela adierazteko duten modu bakarra. Harategietan agiri hau egoteak okelak segurtasun neurri guztiaz inolako arazorik gabe igaro dituela esan nahi du. Agiria harategian ez egotea berriz, okela kanpotik ekarritakoaren seinale da eta hor norberak du parada haragi hori erosi ala ez erabakitzeke.

BEHI EROAK ALA POLITIKARI EROAK?

Iñaki Jubetok iritzi sendoa du behi eroen inguruko kontu honetan. Bere aburuz, "gobernu espainiarrari gero eta baserri gutxiago egotea interesatzen zaio eta behien inguruko kontu hau estrategia honen barneko beste pausu bat baino ez da".

Zaila da izen xeblea duen gaitz honen auzia zelan bukatuko den jakitea. Hala ere, Iñaki eta Bilboko hiltegi-ko zenbait langile iritzi berekoak dira: "Azkenean lau edo bost harategi egongo dira okel ona eta garestia salduko dutenak eta gainontzeko gixajook supermerkatuetan EEB-Betatik ekarriko duten okel hormonaduna erosi behar



izan-go dugu. Honekin -

Quebec-en izugarriko arazoa dute. Behi okela jateari utzi diote minbizia sortarazten duela jakin ahal izan dutelako".

Dena den, hemen ezer gutxi dakigu horren inguruan "murgilduta gauden strategiaren barnean hori isilaraztea komeni delako".

Arestian aipatu halaxe, mota guztietako iritziak entzun daitezke gai honen inguruan baina erabat ziur Galeseko unibertsitateko Wickramasinghe irakasleak esandakoak bezala gutxi daudela. Irakasle honek behi eroen gaixotasunaren jatorria gure zerua zeharkatzen duten kometetik erorritako bakterietan dagoela dio eta izar infektatu hauetatik erorritako hautsaz zikindutako belarra jan duten behiek dutela errua. Errua??

Arazoa ere eskoletako jantokietara iritsi da. Zenbait guraso kezkatuk hanburgesak, albondigak eta orohar behi okelaz eginiko jakiak bazkaltzeko dauden egunetan otarteko txiki batez bidaltzen dituzte haurrak kutsaturik egon daitekeen plater hura jan ez dezaten. Zurbaranbarriko eskolan esaterako, nahiz eta janaria egiten duen enpresaren kalitatea ziurtatzen duten, momentuz eta kontua argitu arte, behi haragirik ez zerbitzatzeko erabakia hartu dute.

Zaila da behi eroekin zerikusia duten hainbat gaiei buruz erabakitzea. Izan ere ez dago informazio argirik eta horrek nahaspila sortzen du. Hala ere, kontsumitzaileok egunero erabaki behar dugu.



Argarziak: Behi okelaren azterketaren lanak.

Zer uste duzu behi zoroen sindrome honi buruz? Behi okela jaten jarraitzen al duzu?


**EIDER GOROZIKA
(SANTUTXU)**
Gure etxean behi
okela jaten jarrai-
tzen dugu.



**LARA MARURI
(SANTUTXU)**
Gure etxean behi
okela jaten jarrait-
zen dugu, nolabait
hil beharko garela
uste dut



**NURIA RODRIGUEZ
(OTXARKOAGA)**
Gurean ez dugu
behi okelarik
jaten.



**GORKA FLORES (ZAZPI
KALEAK)**
Ez dakigu ondo zer
den baina kezka-
rria da. Ez dut nor-
malean jaten baina
sagardotegira urtero-
ko bisita egin gabe
ez naiz geldituko.



**MARIA VILLACORTA
(SANTUTXU)**
Nire ustez kontrola-
tzen badute ez da
izango inolako araz-
orik. Hala ere, nik
ez dut okelarik
jaten.




**EIDER MELENDO
(SANTUTXU)**
Jarraitzen dugu behi
okela jaten, ez nau
kezkatzen.

**JURGI VIDAL
(ABANDO)**
Arazo honetan politi-
kariak paso egin dute
eta gero gaitzak gure-
gana datoz.
Nik behikia jaten
jarraituko dut, sgar-
dotegiak dauden
bitartean behintzat.



**JON MORALES
(SANTUTXU)**
Niri berdin zait,
gaur eguerdian
bazkarian jan
dut.

e l k a r r i z k e t a



Andoni Euba, Estatu Batuetan bidea egin duen Solokoetxeko artista

Solokoetxen jaio zen orain 38 urte eta azken hamabostak pinturari lotuta eman ditu. Hainbat sari, lehiaketa eta beka irabazi ostean merkatal zirkuituan sartu eta Estatu Batuetako San Franciscora joan zen hango galerien mundua jorratu nahian. Bertan arrakastaz jardun ostean, andra, semetxo eta bere lanaren zati bategaz atzera be gure artera etorri da. Artekaleko bere lantegian borobildu ditu Bilbon gaur egun ikusgai daukan erakusketako piezak. Urtebete barru, Estatu Batuetara itzuliko da New York irabazteko asmoz.

Testua: Hektor Ortega eta Alberto Ugarte.
Argazkiak: Inigo Azkona.



Noiz erabaki zenuen margolari izango zinela?

Gure amak dioenez, umetan behin esan ei nuen Arte Ederretan ikasi nahi nuela. Gure amak artean ez zekien hori zer zen, hain txikia nintzen. Marraztu, umetatik marraztu dut. Ume askoren joera da. Marrazki asko eta onak egiten dituzte. Baina hor salto bi eman behar dira: lehenengoa Arte Ederrak ikasiko dituzula erabaki eta bigarrena "ni artearen profesionala izango naiz" esatea. Honek dakartzan onura eta zamarekin, jakina.

Arte Ederrak estudiantzeagaitik ez zaude artistaren bizimodura bideratuta...

Ez. Fakultatean hasi orduko 400en bat ginen. Gaur egun profesionalak lau baino ez gara. %1, beraz. Eta gure promozio ona izan zen...

Erabaki larria da...

Bai, oso. Une kritikoak ditu. Karrera

amaitutakoan oso momentu larria da, oraindik ezezaguna zara, bizimodua ateratzen hasi behar duzu eta, batera, zeure izena ezagutzera ematen. Hortxe zorte apur bat behar duzu. Artista izan nahi duten guztien ibilbide tipikoa orduantxe hasten da: sariaketan lehiatu, bekak eskatu eta... horiek denak lortzeko zortea euki. Bi edo hiru urte horietan zorterik ez badago... Garai hartan 400en bat margo aurkeztzen ziren eta hiru sari eta bi akzesit baino ez zegoen. Obra interesgarria aurkeztuta ere zazpigarren gelditu ahal zinen. Zorterik ezean, sariekin konektatu barik gelditzen zinen, zure izena ez zen ezagutzera ematen eta, ondorioz, galeria txikien atea zarratuta zeuden zuretzat.

Sistemaren mekanikatik kanpo gera zaitzake orduan...

Horixe. Sistematik at geldituz gero, eskolak ematea edo lan bila hastea besterik ez daukazu. Hortik joez gero, oso

zaila da gero artista profesionalaren bidera atzera be etortzea. Bada horrelakorik egin duena, baina oso latza da.

Gaur egun zelan baloratzen duzu Unibertsitatean hartutako formazioa?

Oso ona izan zen. Garai hartan irakasle batzuk izatez artistak ziren. Prestigio handiko artistak, gainera. Ezagupen gehiegi beharbada ez ziguten eman baina artista baten ondoan egoteak berak, bere erakusketak ikusi ahal izateak, energiak betetzen gintuen.

Karrera amaitutakoan, zortea lagun ibili zinen?

Bai. Ikasketak amaitu urtean bertan (1985) 'Gure Artea' sariaren hirugarren postua lortu nuen. Gurean dagoen sariarik handiena da eta aurretik gelditu ziren beste biak oso artista ezagunak ziren. Ezagutzera eman ninduen sari horrek eta geroago bekak etorri ziren: BBK,

Eusko Jaurlaritzan...

'Gure Artea', beraz, erabakiorra izan zen...

Bai. Ondoren areto instituzionalak eskatu ahal izan nituen nire lanak erakusteko eta eman ere ematen zizkidaten. Artearen merkatalgintzan oraindik ez zaude-nez, horixe duzu aterabide bakarra.

Noiz sartu zinen areto pribatuen zirkuituan?

1989an. Geroztik hor nabil, lehenengo hemen eta gero Estatu Batuetan.

Sarien dependentzia-tik libratzea askatasun gehiago ematen du ala gehiago lotzen du saldu beharrak?

Hori artisten arteko eztabaida da. Jendeak artistak elkartu eta arratsaldea kontzeptuetaz eta arteaz berbetan ematen dugula uste du. Egiatan arratsaldea ematen dugu artearen inguruan dauden gauzetaz solasean. Areto

hori ona ote den, beste horrek azkar ordaintzen duen, hangoek berandago... ez dira kontu erromantikoak. Holakoa da errealitatea. Eta gure artean eztabaida dago: Artista batzuen iritzi, lan egiterakoan hobe duzu zure salmenten mende ez egotea. Diotenez, beste lan batek -unibertsitatean irakasle, esate baterako- independentzia ekonomikoa ematen badizu, zure lan artistikoa askatasun gehiagorik burutuko duzu. Beste batzuek diotenez, Picassok bizitza osoa eman zuen bere lana saltzen eta horrela dirutza handia lortzeaz gain nahi bezala pintatu zuen. Bi ikuskerek balio dute. Norberaren izaeraren arabera izaten da, normalean. Gogortuta zauden ala ez...

Zeintzuk izan dira zure artista karre-rako erreferentzia nagusiak?

Gaitza da esaten. Umetatik Caravaggio-ren lana asko gustatu zait baina egia esanda nire lanetan bere eragina oso murrizta da. Apurketak lortu dituzten

artistak be, Pollock edo Gerard Richter esate baterako, oso interesgarriak dira niretzat. Baina nirea ez eze, mundu osoan gaur egun egiten den pintura lan osoa baldintzatzen dute margolari horiek.

Geroago Estatu Batuetara joan zinen, 1994ean, San Franciscora...

Ordurako hemen banuen neure zirkuitua. Banuen Bilbon galeria bat, Madril-en be bai... Donostiako San Telmon erakusketa egin eta horrela ziklo bat amaitu zen. Orduan begi bistakoa zen Estatu Batuetan bizi ahal izanez gero, han merkatua zabalduz gero, hemen-go ez nukeela galduko. Artisten mundua oso zaila da. Hortaz, bide asko zabaltzea komeni da guztien artean oreka lortu ahal izateko. Ondorioz, toki batean erakusketa egin eta ez badoa ondo, baduzu beste inora joaterik. Galeria sorta bat eta zure lana mugitzen duen persona talde bat topatuz gero, dena errazagoa da. Ezin duzu pentsatu galeria batek bizimodua aterako dizula, gauzak ez doazelako beti guk nahi legez. Horrela esanda erraza ematen du. Baina gogotik egin behar da lan. Ez dago beste biderik. Bi urtean behin erakusketa bat eginda oso zaila da bizimodua ateratzea. Estatu Batuetan bizitzeak bidea errazten du. Han bizi bazara eta zure lana interesgarria dela erakusten baduzu, galeria amerikar baten atea zabal daitezke zuretzat. Baina bertan egon behar duzu. Hemendik oso zaila da holakorik lortzea. Behin han eurekin lanean hasita nahi duzun tokian bizi zaitzake. Barruan zaudelako. Orain ni San Franciscotik New Yorkera aldatzekotan nago eta...

Estatu Batuetan topatu zenuen arte mundua oso bestelakoa da?

Egia esanda, ez. Gaur egun nahi duenak badauka munduko bazter guztietan egiten denaren berri. Horretarako dagoz aldizkariak eta internet. San Franciscon harritu ninduen artista kopurua izan zen. Neure estudioa hangar handi batean zegoen eta bertan beste 400en bat estudio gehiago zeuden. Ikaragarria zen. Dena esan behar badut, 400 horietatik gehientsuenak oso artista kaxkarrak ziren...

Egia ote da han galeristek gehiago baloratzen dutela artelan artistaren izena baino?

Hemen baino gehiago behintzat bai. Hemen ez bazara ezaguna ez daukazu

zereginik. Han ere zaila da galeria batean sartzea diapositibak bialduz. Hori ez da bidea, artista asko hortik tematu badira ere. Bertara joan eta hango lana egin behar duzu. Hango lana zera da: hango norbait ezagutu eta galeriaren aurrean pertsona horrek zu aurkeztea. Neuk horrela egin nuen. Catherine Clark galeria jabearen aurrean aurkeztu izan banintz 'oso artista ona naiz' esanez alperrik ibiliko nintzatekeen.

Hainbeste artista egonda, ba leike hain kaxkarrak izatea?

Portzentaiari erreparatuta, Euskadin artistak interesgarriagoak dira San Franciscon baino. Ez New Yorken baino, hangoa bestelako kontua da eta. Hala ere, hainbeste dagoenez, San Franciscon be bada artista on asko. Nire iritzi, eskakizun maila edo kalitate maila apalagoa da han hemen baino.

Zelan ikusten da Bilbo Estatu Batuetan Guggenheim etorri ostean?

Ikaragarria da. Estatu Batuetara ailegatu-takoan 'Bilboko naiz' esan eta azalpen pilo bat eman behar nuen. Hala ere, gehienek ez zeukaten gure berri. Guggenheim etorri, komunikabide guztietan agertu, zalaparta handi hori izetu eta zeharo aldatu da. Orain 'Bilboko naiz' esan eta listo. Ez dago gehiagoren beharrik. Zeozer esatekotan esango dizute 'Egonda nago' edota 'Oraindik ez naiz joan'. Eta horrekin, beste zorioneko kasualitatea Estatu Batuetan gagozen artista euskaldunentzat...

Orain hango euskaldun guztiak Bilbokoak dira, ezta?

Ja, ja. Egia esanda gehientsuenak bilbotarrak dira. Lehendik bazeuden artista euskaldun nabarmenak New Yorken, Txomin Badiola eta Pello Irazu esate baterako, eta Guggenheim efektua lagungarria izan da munduan kokatzen zaituelako. Ez zara toki urrin misteriotsu ezezagunekoa. 'Ah, Bilboko!' Badakite zer den eta toki horrek ospe ona dauka gainera.

Eta Guggenheim museoaz, zer iritzi?

Hasieratik alde azaldu naiz. Orain erraza da baina lehen ez. Alde agertu naiz nire uestez onuragarria delako. Nik ez nuen xehetasun eta ñabarduretan galtzea. Oro har, ona zen, begi bistan zegoen. Baina salbuespena nintzen, artista gehienak kontrari agertu ziren eta.

Ez al da egia eraikina berak arrakas-



ta gehiago duela barruko edukinak baino?

Beharbada gure arteko arazoa da. Orain urte bi Bilbon erakusketa bat egin nuen eta bertara Perúko kolekzionistak garrantzitsuena azaldu zitzaidan. Europan barrena osteratxo egiten ari zen eta bere ibilaldia London-Bilbao-Zurich izan zen. Lehen hori ezinezkoa zen. Beharbada kalean ez da igarriko baina arte munduan oso nabarmena da Guggenheimaren eragina. Gainera, heziketarako bide bat izan daiteke. Orain museoan dagoen erakusketa hori, izugarri ona bera, ez litzatekeen hona etorriko Guggenheim hemen ez balego.

Zelan dago euskal pintura?

Osasuntsu. Euskadin seriotasun handia dago. Ez da hain ugaria azakeria. Jende asko dago lanean gogor eta bikain. Argiago ikusten duzu kanpora joan eta gero.

Nor nabarmenduko zenuke gaur egun?

Kalitate handiko artista asko dago. Neure iritziz, Txomin Badiola, Juan Luis Moraza eta Pello Irazu artista apartak dira.

New Yorkerako zure itxaropenak?

New York oihana da. Hainbat artista dago eta gehienak onak dira. Oso hiri interesgarria da eta bere arte merkatua erakargarria da, oso. Han, San Franciscon ez bezala, aberatsek artea erosi izaten dute. San Franciscon dirudunak gazteagoak dira eta sosak festetan eta antzeko kontuetan gastatu ohi dituzte. New Yorken artistarik eta galeriarik onenak dagoz. Bertara joan eta apur bat arriskatuko dugu.

**AZKEN BI URTEKO LANAK
BILBON IKUSGAI**

"Guadalupanas y coleccionables" izenburupean Andoni Eubak azken bi urteko lanak Bilboko Colón XVI aretoan erakusgai jarri ditu. Hortxe egongo dira otsailaren 16 bitartean. Guadalupeko Ama Birjiñaren irudiaren zein estatubatuarrek bildu ohi dituzten objektuen inguruan murgiltzen da Eubaren jarduna.

Erakusketa honek azken urteotako zure lanaren isla da... 1999. eta 2000. urteotako nire lana da. Gehiena Estatu Batuetan eginda dago eta gero handik hona ekarria. Tamaina handiko margolanak hemen dagoz eginda.

Olio teknika erabili duzu...

Bai. Gaur goizean galerian egon naiz eta eztabaida itzela dagoela jakin dut. Kritiko bik diote ezin direla olio izan, emaitza oso laua delako. Koadro hauek ez daukate barnizik eta olioak direla kostata sines daiteke. Neuk materialak estutu egiten ditut ezinean utzi arte. Olioaz egiten dut lan baina azken muturreraino eramaten dut. Ondorioz, margolan hauen kan-

poko itxura pintura tradizionaletik oso urrutitik dago. Hau guztiau oraingo nire lan sorta honen klabe baten ondorioa da. Pintatzerakoan modu zehatz batez egiten dut, sutsu, gogotsu, pasioaz, expresionista batek egingo lukeen antzera. Hala ere, margotzeko estilo honek metamorfosia dakar azken emaitzan. Koadroko irudiak arte zinetikoarekin, arte optikoarekin, surrealismoarekin edo bestelako estiloekin lotuta egon ohi dira. Asmo eta eginen artean itxuraldaketa gertatzen da eta hortxe datza, ene iritziz, nire lanaren gakoa. Koadroa ikustean ordenagailuz, argazkiez edota industri prozedurez eginda dagoela pentsa zenezake. Baina hori bere itxura besterik ez da. Hortxe datza saltoa: modu batez lan eginez oso bestelako emaitzak lortzen ditut. Horrela jokatzan dut nire lanari garaikidetasun kutsua eta interesa eransteko asmoz. Dena dela, azken emaitza erakargarria izan dadila nahi izan dut, horrela ikuslea errazago sar dadin nire lanean.

Bilboko erakusketa honen ostean zer?

Segituan ARCO n egongo naiz eta apirillean New Yorken egongo naiz. Urtebete barru Donostiako Altxerrin beste erakusketa bat jarriko dut.

berton

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

Lutxo Egia
«Hedabideek garrantzi gehiago eman diote Gabriel Aresti sariari olerki liburuari baino.»

KARMELO ELORRIAGA, MAHATSERRIKO BASERRI GIROA AKORDUAN

Txetxu Rojo:
«Athletic eta herriaren arteko lotura ez da inoiz galduko.»

hartu berton etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Berton aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:

Abizenak:

Kalea: Zenbakia: Solairua:

Herria: Herrialdea: Posta Kodea:

Telefonoa:

Bankua:

Kontu zenbakia (20 digito): ____ / ____ / ____ / ____

Sinadura

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

BEGOÑAKO GASOLINDEGI ZAHARREKO ORUBEA PARKE GISA ATONDU DU UDALAK

LUR AZPIAN BERREHUN AUTORAKO APARKALEKUA EGOKITU DUTE


Jose María Makuaren izena darama Begoñako gasolindegiko zaharreko orubean atondutako parke berriak. "Bergarako leoia" izan zenaren omenezko txoko honek 4.500 metro karratuko zabalera dauka eta haren azpian inguruan bizi direnentzako 202 tokiko aparkalekua sortu du Bilboko Udalak.

Guztira, plaza berri honen egokitze lanek 83 milioi pezeteta eskatu dute. Ezartzeko bankuak, espazio libreak eta belardiak tartekatzen dira arbolen artean. Errepide aldera ematen duen bazterrean muru bat altxatu dute parkean ibiliko direnak babesteko. Muru gainean zuhaitzak landatuaz zaratak geldiarazteko pantaila sortu nahi zain du Udalak.

Inaugurazio ekitaldian Iñaki Azkuna alkateaz gain Josu Bergara Diputadu Nagusia be egon zen. Izan ere, Jose María Makua Franco hil osteko lehenengo Bizkaiko Diputadu Nagusia izan zen.

GATAZKA ZAHARRA

Gaur egun plaza eta aparkalekua dagoen eremu honetan hainbat urtez gasolindegia egon da. Orain urte batzuk inguruko auzoek eragindako protestek gasolindegia ingu-



ru horretatik Miribila aldera eramatea lortu zuten. Aldaketarekin Begoñakoak pozik gelditu baziren ere, San Adriango bizilagunen haserrea etorri zen.

Eta itxura guztien arabera, gasolindegia jabeak be pozarren izango dira, lehenengoaren partez itzelezko gasolindegia bikoitza -Ekialdeko Saihesbideko alde bietan- antolatzerik euki dute eta.

OTXARKOAGA ETA METROAREN ARTEKO AUTOBUSA.

2001 urteagaz batera Otxarkoaga eta Basarrateko metro geltokiaren arteko autobusa etorri da. 34 zenbakia goian daroala, zerbitzu barriak Santutxu, Txurdinaga eta Otxarkoaga lotzen dau. Auzo elkarteek aspalditik eskatuta egoan autobus hau, metro bako alderdietan be garraio publiko eroso egon daiten. Ez dagoz hain pozik, ostera, autobusaren frekuentzia eta batez be prezioa zein dan jakinda, metroko txartela bera nahikoa izan beharko litxakela uste dabe eta.



AITZIBER MARTITEGI GOGOAN

Hainbat lagun elkartu zen urtarrilaren 14an Karmelo plazan Aitziber Martitegi gazte santutxuarrari eginiko omenaldian. 23 urteko neska mahatsorri hau oso ezaguna zen bere auzoan herri mugimenduan jardunean ibilia zelako. Omenaldian bere lagun eta kideek hartu zuten parte kantuz, bertsoz eta berbaldi hunkituz. Aitziber Martitegi abenduaren 25ean hil zen bapateko ondoeza baten ondoren.



JON ANDER COUCEIRO ETA BERE AITA JIPOITU ZUTEN ERTZAIN BATZUEK KARTZELARAKO BIDEAN

Urtarrilaren 5ean ertzain batzuek Jon Ander Couceiro gazte santutxuerra eta haren aita, Andres Couceiro, jipoitu zuten Zazpi Kale-etako erriberan geldiarazi eta gero. Gainera Jon Anderren neskalaguna -besoa apurtu zioten- eta arreba be kolpatu zituzten. Couceirotarrak orduan Basauriko kartzelara joiazan Jon Anderrek barrura sartu behar zuelako bost urteko zigorra betetzeko. Ertzaintzaren bertsio ofizialaren arabera, autoaz ertzainak harrapatzen ahalegindu ostean geldiarazi zituzten aita-semea. Kotxetik aterata ere, bortizki jardun zuten biok ajenteen kontra.

Kasu honetan, poliziaren bortizkeriaren salaketa herri mugimendutik eta ezker abertzaleetik ez ezik, Sindicato de la Policía Vasca delakoaren eskutik be etorri da. Izan ere, Andres Couceiro Bilboko Udaltzaingoa-


ren kaboa eta sindikatu horretako partaidea da. Sindikatuko arduradunak prentsaurrean agertu ziren Ertzaintzak lau haizetara zabalduz bertsoa gezurtatzeko eta jipoituak nortzuk izan ziren argitzeko. Andres Couceiro berak bere gorputz kolpatuko ubeldurak erakutsi zituen kazetariaren aurrean.

Sindikalistek Ertzaintzaren agente batzuen jokaera salatu zuten, gehiegikeriez eta hiritarren eskubideak bortxatuz jardun ohi dute eta. Kasu honetan, beste askotan legez, poliziek buruturiko eraso erasotuen eraso bihurtu zen bertsio ofizialaren poderioz. Eta gaztearen aitak ez zuen ahaztu bere semea kartzelara bialdu dutela epailearen sententziaren arabera Ertzaintzako ajenteen kontra jo zuelako, larriki zaurituta atera



zuen bera izan zen arren. Izan ere, orduan hurretik jaurtitako gomazko pelotakada baten ondorioz lurrean konortea galduta zegoela jipoitu zuten.

Salaketa guztion ondoren, urtarrilaren 11an Amnistia-aren Aldeko Batzordeek deitutako protestaldia egin zuten hainbat auzo eta lagunek. Txurdinagako Ertzaintxearen aurrean elkartu ziren Jon Ander Couceiroren aldeko eta polizi bortizkeriaren aurkako pankartekin. Urtarrilaren 20an, bestalde, ertzain biren etxeak koketelez eraso zituzten ezezegun batzuek. Pisuak Begoña eta Santutxun zeuden. Ez zen kalte pertsonalik eragin. Ondorengo errebindikazio deian erasotzaileek Jon Ander Couceirori emandako tratua salatzearen egin zutela argitu zuten.



ASAPALA

KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon
topagunea eta elkarte
egin guran gabilta



Zeuk ere euskararen ardura badaukazu,
batu gurera!

Hemen gagoz:
Iturriaga 55, 1. Ezkerra
Tfnoa. : 944735448
E-posta: asapala@eusnet.org

SEI IZAR HERRI KROSEAN EHUNDAKA KORRIKALARI



Urtarrilaren 6an ohi bezela Santutxuko Sei Izar Herri Krosa egin zen. Ehundaka korrikalari auzo honetako kaleetatik eta Txurdinagako parkeko lorategietatik karran abiatu ziren helmuga bila. Aurreko hogeitabi edizioetan legez, aurten be giro ona, herri erreibindikazioak eta sexu zein adin guztietako kirolariak elkartu ziren Santutxuko Auzo Elkarteak antolatutako 7,5 kilometroko lasterketa ospetsuan.



Argazkiak:
Iñigo Azkona

SAILKAPENAK

Gizonezkoak: Sergio Tuñón. (24.37)

Emakumezkoak: Rosa Natalia Domínguez. (29.52)

Beteranoak: Jose Antonio Otxoa eta Lola Benitez.

60 urtetik gora: Manuel González.

12 urte bitartekoak: Mikel Hurtado eta Leire Huarte.



DAYTON

Kanpoko garagardoak
Ronak eta txokorrek aukeran

www.bilbaoweb.com/dayton



ekilore
Iturriaga, 92 Santutxu

BASTERTXU



TABERNA

Ricardo Bastida plaza

E R R I K A R I A K

E R R I K A R I A K

IKASTETXE AUKERAKETA, GANORAZKO ERABAKIA

OTSAILAREN 5ETIK 16RA ARTE AURREMATRIKULAZIO EPEA ZABALDUKO DA

Beste behin otsailari lotuko zaio aurrematrikulazio kanpainari. Datorren urtean lehenengoz eskolara joango diren bi eta hiru urteko umeek non ikasiko duten hautatu behar dute aita-amek. Seguru asko seme-alabaren behin betiko ikastegia izango dena aukeratzeko kalitate, hurbiltasuna eta euskara izan dira azken urteotan gurasoen erabaketan giltzarri. Irakaskuntza sare publikoan zein ikastola pribatueta badago egon gure inguruan hiru baldintza horiek aise betetzen duten zentroak.



L. ALBAREZ

Otsailaren 5 eta 16 bitartean datorren urterako aurrematrikulazio kanpaina egingo da. Bi eta hiru urteko umeen gurasoentzat oraintxe da erabaki larria hartzeko sasoia: seme-alabak non heziko dira? Ez da txantxetako kontua, batez be ume gehienek derrigorrezko hezkuntza osoa -16 urte bete arte- ikastegi bakarrean egin ohi dutela kontutan hartuta. Bizkaiko Gurasoen Elkarte (BIGE) lehendakari Ana Izagirre-

ren hitzetan, ama eta aiten hautuak azken urteotan ondoko hiru ezaugarriok euki ditu ardatz: "irakaskuntza kalitatea, ikastegia etxetik hurre egotea eta euskaraz hezte". Duda barik, hezkuntzaren kalitate mailak pisu handia du aukeraketan. Zentro gehienek hobekuntza nabarmenak egin dituzte azkenaldion, ikasgai berriak sartu dituzte eta irakasleak teknologia aurreratuera egokitzeko ahalegina begi bistakoa da eskola askotan. Ondorioz, hezkuntzak urterik urte aldatzen duela kontutan hartuta, antzekotasun gutxi dago oraingo eskolak eta orain hogeiturokoen artean. Bestalde, euskarari dagokionez, gure inguruetako ikastetxe gehienetan D eredu nagusi da, beste batzutan B -eredu ustez elebiduna- ere badela. Azken urteotako emaitzak aintzat hartuta, aurten ere D eredukoak izango dira ume gehien ekarriko dituzten ikastegiak. Erdara hutsezko eskolak (A eredu), oster, desagertzeko zorian dagoz, demanda urterik urte murrizten da eta. Iaz, Mahatserriko irakaskuntza publikoan sartu hamar ume berritatik bakarra joan zen A eredura. Gure artean euskara hutsez (D) irakasten duten ikastegiak honakoak dira: Kirikiño (Txurdinaga), Artxandape (Uribarri), Abusu (Bolueta eta Abusu artean) eta Begoñazpi (Txurdinaga) ikastolak, sare publikotik kanpo. Lehenengo hiruak ikastolen Konfederazioko partaide dira



KIRIKIÑO ikastola

EUSKAL ETA KALITATEZKO HEZIKETA GURASOEN KOOPERATIBA

2 urtetik 18 urtera

Gabriel Aresti, 22
E-mail: Kiriki@ikastola.net
Tfnoa: 944598100
Faxa: 944598200

ERASOEN ERAGINA

Aspaldion bortitz eta oldarkor jatorrun euskararen aurkako erasoak ez du etenik izan. Azken asteotan berriztatu dira. Auñamendi entziklopedia interneten edonoren eskura jarri eta hamabost egunetara kendu dute Eusko Ikaskuntzako komunikabide espainolek eta UPNko Gobernu nafarrak presio latzak egin eta gero. Mayor Oreja ministroak eta bere menpekoek euskal "terrorismoaren" sustraiak euskarazko irakaskuntzan dagozala errepikatu dute behin eta berriro. "El Mundo" egunkari espainolak ikastolen "mundu beldurgarria" salatu zuen ozen erreportai zabal batean, berenberegiz horretarako Madriletik Euskal Herrira etorritako kazetari trebe batek egina.



eta laugarrena Eleizarena da. Azken honek hezkuntza prozesua bizkaieraz egiten du. Berriotxo eta El Salvador ikastetxe pribatuak ere D eredu eskaintzen dute. Irakaskuntza publikoan D eredu ikastegiak dira Karmelo ikastola (Santutxu-Solokoetxe), Txurdinaga, Birjinetxe (Txurdinaga), Goya (Otxarkoaga), Luis Briñas (Santutxu), Uribarri, Zurbaran eta Zurbaranbarri eskolak.

AITAMENTZAT AUKERAK

Kalitatea eta euskara gorabehera, ikastegiok aukera-maukeran jartzen diete gurasoei irakaskuntza sistemarekin eukiko duten lotura. Izan ere, seme-alabak eskolara bialtzean aita-amek konpromisoren bat hartu behar dute euren umeen hezkuntza prozesuan. Kasu batzutan hileko kuotak ordainduta eta bileretara

joanda nahikoa da, ikastetxe pribatu batzuen kasuan esate baterako. Bestetuetan, gurasoak kooperatibista sartzten dira, hainbat ikastolatan gertatzen den legez. Aita eta amek ikastolaren jarduna euren eskuetan hartzen dute eta, ondorioz, ardurak zein erabakiak hartzeko gaitasunak handiagoak izaten dira. Sare publikoan, Ana Izagirrek azaltzen duen moduan, "muga gaindituz" leloa hartu dute aurten lematzat. "Mugak apurtu behar ditugu ume guztiek euskaraz ikas dezaten eta eskola barruko mugak gaindi ditzagun: pobre eta aberatsen artekoak, neska-mutilen artekoak, kanpotik datozenekikoak eta beste hainbat", argitzen du. Gainera, aurten guraso eskola proiektua abian jartzekotan dira, aita eta amek seme-alaben hezkuntza prozesua bertatik bertara segi ahal dezaten txiki-txikitatik.

Zer eragin euki du azken hileotako orro etenbako horrek euskal hiritarengan? Aurrematrikulazio kanpainak emango du horren berri. Bizkaiko Gurasoen Elkarte Ana Izagirreren esperantza da ez dela igarriko. "Gurasoak pozik daude euren seme-alabak euskaraz ikasten dutelako. Egia da holako kanpaina batek beldurra ekarri duela. Baina ez du errealitatean oinarririk", nabarmentzen du.

Azken urteotako tendentzia -D eredu jaun eta jabe- mantenduko delakoan badago ere, Ana Izagirrek ez du uste holako kanpainak ustelak direnik. "Min handia egiten dute konfiantza kolokan jartzen dutelako. Berriro ere azalpen pilo bat eman beharra dago altaboz handi horiek ereindako zantzaz zentzugabeak ezabatze-ko".



I.E.S. TXURDINAGA - BEHEKOA B.H.I.
Avda. Gabriel Aresti, 8
Tel. 94 412 18 11 - Fax 94 473 29 88

29 URTE AUZOAN DBH, BATXILERGOA ETA LAN ETA LAN HEZIKETAKO ZILOA

**D.B.H.n A ETA B EREDUAN IKASTEKO AUKERA
JANTOKIA
BATXILERGOA EGUNEZ ETA GAUEZ
IKASI AHAL DA**

ZURBARAN SAKIBALOI TALDEA

Bizkaiko bigarren mailako D multzoko buruan dago talde mahatsorria

Testoa: Itxaso Perez



Zutik : Txutxi (entrenatzailea), Igor, Ivan, Raul, Loren eta Sergio. Makurtuta: Gonzalo, Mitxel, Ibon, David, Javi eta Aitor (Unai eta Jose - delegatua- ez daude argazkian)

Zurbaran auzoan dagoen ikastetxe bakarrean, eskola eta institutua dena eta beharbada "Las Focas" ezizenez ezagunagoa den horretan, kirol ugari egiten da, eta saskibaloia da horietarik bat.

Orain hiru urte senior mailan mutilen taldea eratu zen, aurreko urteetan eta gazteen mailatan aritutako jendeaz, baita inguruko auzoetatik etorritakoez ere, osatuta. Santutxuko Maristetatik etorritako jokalaririk ohi batzuk horren adibide dira, eta honek baieztatzen egiten du, nolabait, santutxuarrak leku guztietan egon behar dutela diñoen teoria (taldeko jokalaririk Igorrek esan digun bezala). Talde honek Zurbarango ikastetxean entrenatu eta jokatu egiten du hilabetean bitan larunbatean arratsaldeko lehenengo orduetan. Plantilan 12 jokalarik daude (ahal den gehieneko kopurua), argazkian 11 "bakarrik" agertzen diren arren. Entrenatzailea Txutxi da, eta hiru denboraldi hauetan emaitza ezin hobekak lortzen ari da. Taldea herrialde mailan jokatu du, seniorreko 2. Mailako D multzoan, eta orain hiru urte partidu bat ere irabazi ez zuten arren, aurten jokatu ari diren fase honetan bere multzoko lehenengo postuan sailkatuta daude, multzoko beste zazpi taldeen aurretik.

Talde hauen artean Lezamako Trenbide Zaharra kaleko Montaña Taldea ere badago, baina honetaz hurrengo batean mintzatuko gara.

Dena den, sailkapenari dagokionez ez dago ezer erabakita. Bi edo hiru partidu jolasteko dauzkate oraindik eta multzoko lehenengo 4 taldean berdintsu dabilte, 3 edota 4 partidu galduta dutela. Haien artean Montaña taldea, eta haien aurkako derbya gogorra eta lehiatua aurreikusiten dute, batez ere etxetik kanpo jokatu behar dutelako. Hala ere itxaropenik ez dute galtzen eta igoerarako fasean sartzeko asmo tinkoa erakusten dute.

Gauza bitxia da, baina senior taldearen emaitzak hobetuz joan diren heinean atzetik etorri behar zirenen zaletasuna desagertuz joan dela dirudi. Izan ere, aurten ez da jubenil ezta kadete talderik atera eta horrek kezka sortu du eskolaz kanpoko ekintzaren arduradunarengan. Oinarririk gabe senior taldeak ezin duelako luzaro iraun eta pena litzateke hain denboraldi ona egin eta gero dena ezerezean geratzea.



Derby polit bat jokatu zen, non etxeokoa garaile atera ziren erraztasunez.

BERTON aldizkaritik aurrera eta emaitza on horiek eskuratzen segi dezazuela opa dizuegu.

Sarrimendi (604 metro)


Andikonatik

Bilbotik Donostiarako bidean Durango igaro ondoren Matiena pasa eta segituan Markinarako errepidea hartu behar dugu. Bide honetatik hiru kilometro egin eta gero, 34 kilometroa markatzen duen mugari ondoan bideguru-tzea topatuko dugu. Baserri baten ondok ezkerretarantz ateratzen den errepidea hartu eta lehenengo beheantz eta gero oso aldatz gogorrean gora Andikonara ailegatuko gara. Autoa pilotaleku ondoan utzi genuen (A).

Oinez segituko dugu errepidetik. Hamar minutu beranduago baserri multzo bat topatuko dugu eta bertako etxe eder biren artean sartuko gara ezkerretarantz. Bertan iturria ikusiko dugu. Baserrion goialdean zementuzko pista hartuko dugu ezkerretarantz (B). Laster txalet baten ondoko hesia zeharkatu eta pista zabal bat hartuko dugu. Aurre-ra-txoago gure norabidea eskumaldera aldatuko da, pinu artera. Ondoren, lautadaxo batean gaztainondo multzoa aurkituko ditugu. Gaztainondia igarotakoan pista zabaletik jarraituko dugu aldatzean gora, elektrohariteri dorrea (C) ezkerrean utzita. Hamar minutu beluago mendilepora helduko gara. (D).

Mendilepoan etxola dago, eskuin aldean iturria eta aska duela. Iturritik apur bat beheago eta eskuinaldean dagoen bidetik abiatuko gara. Pagadi eder baten barrena ibili ostean Kristobal Deunaren baselizaraino helduko gara.

Gure mendia egiteko atzera be iturri eta etxola aldera etorriko gara. Txabolaren atzealdetik pista bat ateratzen da. Ha hartuta apur bat gorantz egin eta lehen bidebanatzean ez ezkerretara ez eskumalara egingo dugu: bien artean ateratzen den bidexkatik joko dugu zuzen gora laster gailurrera heltzeko. Gailurreriatik eta eskumalderantz segituta, laster Sarrimendira (605 metro) iritsiko gara. Tontorrean txartel kutxa harkaitzaren gainean dago.



Guztira: 50 minutu.

Ikusitako zuhaitzak:

300-400 metro: Arkazia, ereintza, urritza, haritza, izeia, nekosta, artea, pinua, gaztainondo.

400-500 metro: Gaztainondo, haritza, pinua, pagoa, gorostia, lizarra, nekosta, artea.

ADI
ASESORIA
FISCAL - CONTABLE - LABORAL
JURIDICO - MERCANTIL

Oleta, s/n - 48970 BASAURI
Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net

Zergak-lan harremanak
kontabilitatea juridikoa
merkatalgintza



SANTUTXU SPORT

KONTU KONTARI

"Idatzi-irakurri" taldeak Txurdinagako auzo etxean dauka egoitza eta bertan idazten gozaten dutenek astero biltzen dira


Testoa: Iratxe Ruiz

Duela bi urte, Bilboko Udalak antolatzen dituen idazketarako tailerretatik emakume talde bat antolatu zen. Haien interes komuna idaztea zen eta ezinegona behin kurtsoan parte hartutakoan errepikatu ezin izatea. Taldekideak idazten jarraitzearen nahiak azaldu zituztenean, biltzeko egoitzaren bila aritu ziren.

Azkenean non eta Begoña-Txurdinagako auzo etxean lortu zuten gela. Hirugarren ikasturtea hasi berria duen taldeak egun, hamarna bat emakumek eta gizon baka-rrak osatzen dute. Idazten aritzeko izaera ezta adin zehatzik ez dagoela antzeman daiteke, bertan 20 bat urtetik eta 70rainoko pertsonak bai-taude.

Bertan aritzen direnek ez dute estilo bat bilatzen ezta irakaslearen gustuko izango denik idazten baizik eta beren barnetik idatzia izateko ateratzen zaiena paperean izkiriartzen. Ostegunero biltzen dira filologia hispanikoan lizentziatua den irakaslearen inguruan. Raquel de Cerrok ideia bat azaldu edo gai bat jarri egiten du eta bakoitzari gai horrek burura ekartzen diona idatziko du.

Badirudi gaia itxia izanik idazki guztiak antzeko-ak izango direla baina ez da hala izaten. "Adibi-dez eguzkia gaitzat jartzen du, eta horrek bakoitzari sentimendu eta pentsamendu bereziak




dakarzkio. Lanak ez dira sekula ere berdina arituko", diosku Eurne Fernándezek, 'Idatzi-irakurri' Elkartearen zuzendari eta idazleak. Gaiaren inguruko burutazio guztiak amaitutakoan lana idazten hasten dira eta hurrengo saioan eskola kideen aurrean irakurtzen dituzte.

Orduantxe, kritikaren ordua heltzen da. Hemen

irakasleak kenduko zuena edo aldatuko zuena proposatzen du eta kideek gustukoa izan duten edo ez iritzia emango dute. Pertsona bakoitzak estilo propioa du idazterako orduan eta bere pentsamenduak paperean idazterakoan; modu honetan, batzuek gaia era komikoan jorratuko dute, beste batzuek dramatikoan etab,...


Idaztea gustuko izatea ez du zertan idazle izateko gurariarekin bat etorri behar. Askori terapia moduan suertatzen zaie bide hau eta badaude interes berdinak dituztenekin egoteko grinak soilik biltzera bultzatzen dituztenak.

Idazkiak urtero hirutan argitaratzen den aldizkarian ("Decires") publikatzen dituzte, hainbeste gogoz egin duten lana irakurrita izan daiten. Tailerreko partaideek badakite idazle famatuak izatera inoiz ez direla helduko baina gustatzen zaiena egiten dihardute eta bide batez antolatzen diren lehiaketetan parte hartzen dute. Zenbaitek poesia arloan eta kontu laburretan txapeldun geratu dira!



Bukatzeke esan behar elkarteak idazteko tailer hauetaz gain beste zenbait kurtso eskaintzen dituela: Autoestima eta erlajazioa, Marrazketa kreatiboa eta komikiari sarrera hain zuzen ere. Interesa izanez gero hona hemen zenbait informazio baliogarri.

Idatzi-Irakurri / Escribe-Lee Elkarte
Ostegunero 19etatik 21etara.
Telefonoa: 600 742 116



Biktimenganako Laguntza Zerbitzua Servicio de Asistencia a la Víctima

Zeurekin gaude

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lanbidezarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Derechos Humanos y Cooperación con la Justicia

Gelaya INMOBILIARIA

HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA-SALMENTA - ALOGERAK - ...

Iturriaga, 92
Tfnoa: 94 473 07 78
48004 SANTUTXU - Bilbo

Bikoitz

ARLOPAK ★
ZILARRA ★
OPARIK ★

Part. Arsuaga SANTUTXU
Tel. & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO
bikoitz@euskalnet.net / www.euskalnet.net/bikoitz

MESÓN
URETXE

Santutxuko poteo gunean

Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Azken aldian nahiko minberatuta zaude eta irratian doinu xamurrak entzuten dituzunean malkoren bat edo beste isurtzen zaizu. Dena den lasai egon zaitez beti pasatu behar dira horrelako denboraldiak.

Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Gelditu gabe zabilta alde batetik bestera guztiz estreSaturik. Honek eragin kaltegarriak izan baino arinago bizitza patxada handiagoz hartzearen gomendioa jarraitu beharko duzu, zure onerako baita.

Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Gehienetan karteran ez daukazu xentimo bat ere ez, eta daukazunean berehala gastatzen duzu. Horrela ezin da. Ganora gehiago behar da.

Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Poza darizu alde guztietatik, inork ez ezerk ez dizu aurpegitik kentzen irribarre hori. Gauzak ondo baino hobeto ateratzen ari zaizkizu, beraz momentu hau aprobeitatu ezazu eta zorionak!

Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Sorpresa zoragarri bat izango duzu egun batzuk barru. Zer den? hori ezin da esan behar bestela ez da sorpresa izango. Irrikitan zaude ez? Ba, orain itxarotea baino ez zaizu geratzen.

Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Etxekoekin kokoteraino zaude, ez zaituzte pakean uzten. Zuk gainerakoen errua dela uste duzu baina pixka bat pensatu, ez ote duzun zuk erru pixka bat ere edukiko.

Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.
Idea bat darabilzu buruan azken aldi honetan. Beldur zara buruan daukazun hori aurrera eramateko orduan baina bizi-tzan arriskatu beharra dago zerbait lortu nahi bada.

Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Ikasi eta ikasi zabilta azterketen garai gogor honetan. Neke- neke eginda zaude baina kontutan eduki behar da zure esfortzuak bere fruituak emango dituela. Beraz, pazientzia eta aurrera!

Sagitarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Larregi jaten duzu egunotan, txokolatea, gailetak... Denetarik jatea ona da baina behar den moduan. Horrela ba, zure dietan janari osasuntsuagoa sartzea komeni zaizu bestela gustuko ez dituzun ondorioak jasan beharko dituzu.

Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Maitasun kontuetan nahiko txarto zabilta. Inork ez dizu kasu handirik egiten eta pixka bat deprimiturik zaude. Zure buruan konfiantza gehiago eduki behar duzu eta ikusiko duzu horrela gauzak nola hobetzen diren.

Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Ordenagailuaren aurrean denbora dezente pasatzen duzu, interneten. Oso entreteniturik egoten zara baina kontua etxera heltzen denean gorriak ikusiko dituzu. Igarri egiten da zuk ez duzula ordaintzen.

Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Asperturik zabilta, egun guztiak berdin berdinak iruditzen zaizkizu. Horregatik bidaiaren bat egitea komeni zaizu eta denborarik ez baduzu lasai! aste santua ez da horren urruti geratzen.

agenda

OTSAILAK 3:
BILBO DANTZAN. BILBOKO
AREATZAN OHIZKO DANTZAK.
ARRATSEKO 6ETAN.

OTSAILAK 4:
SANTA ESKEA. LEHENGO MODUKO
SANTA AGEDA MAHATSERRIAN.
GOIZEKO HAMAIKETAN ARBIDEA
KALEKO EUSKALTEGIAN.
EGUERDIAN BAZKARIA. ARRASTIKO
7ETAN MARIA REINAN. ASAPALA ETA
BERTSO ESKOLAREN ESKUTIK.

OTSAILAK 6:
ANTZERKIA. MASKARADA TALDEA.
"KAIO LUMA ZIKINA". BILBOROCK.

OTSAILAK 11:
TXITXIRIBITZ TALDEA: ARTXANDARA
PATINATZERA. GOIZEKO 10,30ETAN
KARMELO PLAZAN.

OTSAILAK 11:
UMEENTZAKO ANTZERKIA.
MARKELIÑE TALDEA. BILBOROCK.
GOIZEKO 12ETAN.

OTSAILAK 13:
ANTZERKIA. MASKARADA TALDEA.
"KAIO LUMA ZIKINA". BILBOROCK.

OTSAILAK 17:
TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX.
BILBOROCK. ARRATSALDEKO
5ETAN ETA 7ETAN

OTSAILAK 18:
TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX.
BILBOROCK. GOIZEKO 12ETAN.

OTSAILAK 20:
ANTZERKIA. MASKARADA TALDEA.
"KAIO LUMA ZIKINA". BILBOROCK.

OTSAILAK 22:
MINTZALDIA. "EMAKUMEA ELIZAN".
FRANCISCO JAVIER VITORIA ETA
MARTA ZUBIA. ARRATSEKO 8ETAN
KARMELO ELIZAKO ARETOAN.
SANTUTXU-BOLUETAKO GIZARTE
ESKOLA.

